



Gipuzkoako enpresa ehunaren lehiakortasuna indartzea, jasangarritasuna eta lankidetzaren sustatzeko programa.

II. ERANSKINA: LEHIAKORTASUNA INDARTZEA

Urtea :2018 | Ekonomia Sustapena

DESKRIBAPENA

Enpresa sarearen lehiakortasuna sustatzea izaera estrategikoa eta inpaktua duten jardueren bitartez, produktu, zerbitzu, prozesu, antolaketa, eta negozio ereduak bereizten eta balioesten laguntzeko.

ENTITATE ONURADUNAK

- Gipuzkoan kokatutako enpresak;
- Gipuzkoan kokatutako enpresen elkarteak eta klusterrak;
- EAEn kokatutako enpresa elkarteak, Gipuzkoan kokatutako enpresen interesak ordezkatzen dituztenak; eta,
- Gipuzkoan kokatutako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko erakundeak.

DIRU-LAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUERAK

Diruz lagun daitezkeen jarduerak izango dira proiektuak garatzea (ikerketak, analisiak eta azterketak, laguntza tresnak sortzea, enpresa eraldaketako dinamikak eta esperientzia esperimentalak ezartzea) xede hauetarako:

- enpresa arloko inteligentziari lotutako dinamika esperimentalak txertatzea, garatzea eta ezartzea - barruko eta kanpo informazioa jasotzen dutena-, eta baita ere informazio askorekin lan egiteko aukera ematen duten teknologia berri, diziplina eta jakintza esparruak jasotzen dituztenak eta, erabakiak hartzeko xedez, jakintza sortu, balioa erantsi eta negozio aukera berriak eskaintzen dituztenak.
- Enpresaren jakintza bereizgarria identifikatzea eta modu adimentsuan ustiatzea (oinarrizko eskumenak eta balioa sortzea), etorkizuna duten enpresa aukerak sortzeko.
- Erabiltzaileak eta bezeroak enpresetan eragile aktibo bihurtzeko prozesuak txertatzeko.
- Negozio ereduak balio erantsi handiagoko proposamenetara bideratzea, sebitzazioa barne - produktuaren salmentatik produktu eta zerbitzu binomiora doan eboluzioa-.
- Negozio aukera berriak sortzen dituzten prozesuak ezartzea, enpresak dituen jakintzaren erabilera



intentsiboa eta sormena erabilia, betiere merkatu balioko proposamenak aldeztatik egiaztatuta.

- Enpresak eraldatzeko prozesuak sortzea ekonomia zirkularraren esparruan, eta baita ere eko-diseinua eta eko-serbituzioa.
- Balio proposamen berriak egituratzea ekonomia sortzailearen hibridazioaren bitartez.
- Arlo sozialeko eta lurraldeetako behar, erronka eta aukerak asetzeko modu berriak bideragarriak egitea, ekonomiaren abantaila erlazionalak eta pertsonen, enpresen eta lurraldearen ahalduntzearen potentzialitateak optimizatuz.
- Eskera hauek aurkeztea eta tramitatzea: Europako patentea, nazioartekoa edo patente nazionala atzerrian; eta erabilgarritasun eredu edo diseinu komunitarioa, nazioartekoa edo nazionala atzerrian.

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK

Diruz lagungarriak izango dira erakunde eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta xehatua jasotako kostuak, jardueraren garapenari zalantzarik gabe lotuta daudenean. (Ikusi diruz lagungarriak diren kostuak 12.oinarrian)

DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Diru laguntzak kostu hautagarrien % 75 izango dira, salbu eta hainbat proiektu -ikerketak, analisiak eta azterketak, laguntza tresnak sortzea, kontzientziazioa eta sentsibilizazioa, dinamikak ezartzea...horietan % 100 izango baitira.

EMATEKO PROZEDURA

Lehiaketa bidezkoa, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA

Diru-laguntza hauek ez dira bateragarriak beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk, izan nazionala, izan Europar Batasuneko edo izan nazioartekoa, eman lezakeen helburu bereko subentzio, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekina.

BETETZEKO EPEAK

Eskera aurkezteko epea: **2018ko ekainaren 26an, goizeko 12:00etan amaituko da.**

Jarduerak hasteko epea: **diru laguntza eskatu ondoren hasiko dira, urte naturalaren barruan.**

Proiektuen exekuzio data: **2019ko maitzaren 24a**

Proiektuak justifikatzeko data: **2019ko ekainaren 24a**



ARAUDI APLIKAGARRIA

Gipuzkoako enpresa ehunaren lehiakortasuna indartzea, jasangarritasuna eta lankidetzaren sustatzeko programa: II.ERANSKINA - Gipuzkoako enpresen lehiakortasuna indartzea sustatu.

ESKAERA EGITEKO URRATSAK

- Informazioa eta dokumentuak

<http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programas-y-ayudas/competitividad/lehiakortasuna-indartzea>

- Eskaera kudeatzeko aplikatiboa

<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU

EKONOMIA SUSTAPENENKO ZERBITZUA

Kudeaketa administratiboa: 943.113981

Kudeaketa teknikoa: 943.112217

sustapena.lehiakortasuna@gipuzkoa.eus